



ZERBITZU ASISTENTZIALA

3 urtetik aurrerako ikasleen eskola ordutegia osatzeko zerbitzua

IZEN EMATEA

2022/2023 ikasturtean zerbitzu asistentziala erabiliko duten ikasle guztiek ondorengo alta galdetegia bete beharko dute ikasturtea hasi baino lehen:

izena eman



FUNTZIONAMENDUA

Zerbitzu asistentzialak hala behar duten familiei 3 urtetik aurrerako ikasleen ordutegia luzatzeko aukera eskaintzen die.

ORDUTEGIA

07:30etik 09:00etara

ERABILPEN MALGUA

Zerbitzuaren erabilpena malgua da ordutegietan eta erabilpen egunetan:

- Sarrera ordua familien beharretara egokitu daiteke, beti ere alde aurretik zelariarekin hitzartuz gero.
- Erabilpen jarraia egingo duten familiek izango dute lehentasuna.
- Zerbitzua egun solteetan erabiltzeko, alde aurretik izena eman beharko da Ikastolako idazkaritzan, gehienez aurreko lan eguneko 15:00ak baino lehen 94 672 67 37 telefonoan edo audio@ikastola.eus posta elektronikoa bidez.

KOKAPENA

Haur Hezkuntzarako zerbitzua etapako eraikinean kokatuko da eta Lehen Hezkuntzako Ikastolako txokoan, atezainaren etxean.

TOKI KOPURU MUGATUA

Zerbitzuak toki kopuru mugatua izango du. Ezarritako ikasle kopurua gaindituz gero, zerbitzua erabiltzeko izena eman duten familien arteko zozketa bidez esleituko dira tokiak.

KUOTA

Ordainketa hilabetero bideratzen da Ikastolako erreziboan. 10 egunera arteko erabilpena 6€/eguna ordaintzen da, hortik aurrera 65€/hilabetea.

Zerbitzuaren finantzazioak gutxieneko erabiltzaile kopurua eskatuko du. Hori dela eta kuotaren zenbatekoa zerbitzua martxan jartzean aztertuko da eta hiruhilabete amaieratan, abenduan eta martxoan, ekonomiki bideragarria den edo kuotaren zenbatekoa berkalkulatu behar den baloratuko da.